



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/05

EGUNA: 2024/04/25

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:40

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Hasi aurretik Alkateak proposatu zuen urgentziazko puntu berri bat sartzea bileraren gai zerrendan. Izan ere, deialdia banatu ondoren LGTBIQ fobiaren aurkako nazioarteko egunaren adierazpen instituzionalaren proposamena jaso zen eta, osoko bilkuraren hurrengo bilera nazioarteko egun hori igaro ondoren aurreikusita dagoenez, gaurko gai zerrendan sartzea proposatu zen,

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen LGTBIQ fobiaren aurkako nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala gaurko bileraren gai zerrenda sartzea. Hala, bileraren 5. puntua izango da.

1.- Aurreko bilkurei dagozkien aktak onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaizkion 2024ko martxoaren 21ean egindako osoko bilkuren aktak, onar ditzan.

Lehena, 2024/03 bilera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderarako ez ohiko bilkura, hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketarena dagokiona, eta bigarrena, 2024/04 bilera, martxoko ohiko bilkurari dagokiona.

Udalbatzak, aho batez, onartu zituen martxoaren 21ean egindako osoko bilkuren aktak.

2.- Alkatzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen EH Bildutik bazituztela hainbat zalantza:

- 125/2024 Dekretua: «Hutsik deklaratzeko eguneko zentrorako animazio jardueren indartze zerbitzua eta laguntza psikologikorako zerbitzua esleitzeko prozedura, eskaintzarik aurkeztu ez delako» eta horren harira galdetu ea zer prozedura aurreikusten den kontratu hori esleitu ahal izateko, edo zein den egoera.

Alkateak erantzun zuen oraindik ez zela erabakirik hartu, eta hartu ahala batzordera eramango dela.

Gilen Garciak azaldu zuen galdera zela ea zer aurreikusten duten, ez erabakia hartuta ote dagoen ala ez.

- 126/2024 Dekretua: «Likidatzea sorosleen kontratatua, eta ordaindutako fakturen eta justifikatutako gastuen arteko aldea itzultzeko agintzea.» Horren harira azaldu zuen likidazioaren gorabeheren berririk izan dutela, eta galdetu zuen zein izan den egin den kudeaketa, enpresarekin bileraren bat egin ote zen edo.

Alkateak erantzun zion guztira 167.428,36 euro ordaindu zitzaizkion enpresari, eeta zurriz orduan, ezin izan zuten 26.415,25 euro justifikatu. Hortaz, idatziz eskatu zela justifikatu gabeko zenbateko hori itzultzea.

Gilen Garciak galdetu zuen ea bileraren bat egin ote zen enpresarekin, eta alkateak erantzun zion ez dela bilerarik egon.

Lehiaketa berriaren harira, Gilen Garciak galdetu zuen ea Aldundiaren berririk egon ote den, hau da Batzar Nagusitan hartutako erabakia errespetatzeko asmorik azaldu ote duten.

Alkateak erantzun zion Getariako alkateak adierazi ziola EH Bilduk gobernatzen duten kostaldeko udalerriko alkateek gutun bat prestatu zutela Aldundiari bidaltzeko, eta galdetu ziola ea eurek zer iritzi zuten gai hori buruz, eta erantzuna jaso baino lehenago, berriro jarri zela berarekin



2024SPLE0005

5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

harremanetan azaltzeko Edurne Berasaluze, Presidentziako foru diputatuaren dei bat jaso zuela azaltzeko sorosleen gaia Presidentziatik Ingurumenera pasa zela, eta lehen bait lehen hondartzako mahia deituko zutela. Hortaz, eskutitza bertan behera gelditzen zela Aldundiaren berririk izan arte. Hondartza mahia maiatzaren 7rako deitu zen, eta, hondartza denboraldia hasi baino lehenago sorosleak ahal izateko, bilera hori berandu izango zela, horregatik lehiaketa berria abiatu dela. Gainera, maiatzaren 7rako aurreikusitako bilera atzeratu egin dela, maiatzaren 10era.

- 152/2024 Dekretua: «Onartzea toldo, etzaulki eta aulkien zerbitzuaren emakida eta aldageletako giltzen kudeaketarako kontratazio espedientea.», eta, horrekin lotuta, 198/2024 Dekretua: «Hutsik deklaratzeko toldo, etzaulki eta aulkien zerbitzuaren emakida eta aldageletako giltzen kudeaketarako kontratua esleitzeko prozedura.» Galdetu zuen ea zeintzuk ote ziren aurreikuspenak eta zer datak aurreikusten ziren, kontratu honek, sorosleena bezala kezka sortzen baitu, eta, ea, kasu honetan, enpresarekin harremana egon ote den.

Alkateak erantzun zion orain arte toldoak eraman ohi duen pertsonarekin sei bilera egin direla, urrian hasita. Azken urtetan pertsona horrekin izan diren gorabeherak aintzat hartuta, garaiz astea erabaki zela. eta tarte horretan hainbat gauza barajatu direla, berak eginiko eskaerak (etxolaren kokapena eta horren baldintzak, eta abar), baina beti adostasun batera heldu behar zela ematen zuenean, beste pega bat adierazten zuela, eta azkenean, sei bilera horien ondoren, esan zuela ez zituela toldorik jarriko. Aztertu zela Udalak toldoak erosteko aukera eta gero Udalak berak horien kudeaketa egitea, baina erantzun zuela ez zituela toldorik salduko. Horiek horrela, kontratua esleitzeko lizitazioa martxan jarri zen, eta ez da inor aurkeztu. Horrela, eskatu zaiola pasealekuaren azpian dituen toldoak eta material guztia biharko (apirilak 26) ateratzeko.

Asmoa dela proposamen bat egitea toldo horiek Udalak erosteko eta, baiazkoa emanez gero, Udalak berak horien kudeaketa egitea.

- 179/2024 Dekretua: «Turismo bulegoan salgai jartzeko babarrunentzako bilgarria egitea.» Zenbatekoa txikia dela, eta kontratu txikia izanik, ez duela batzordearen irizpenik beharrik, baina, horren berririk ez dutenez, jakin nahi dutela zer den, nondik datorren?

Alkateak erantzun zion Turismo bulegoan saltzen ohi direla Geoparkearen barruan ekoizten diren produktuak, gazta, txakolina, eta abar. Ikusi zela, Deban badaudela babarrun berezi batzuk, Debakoak direnak, Toki Eder baserriak ekoizten dituenak, eta haiekin harremanetan jarrita, galdetu zitzaiela ea izango ote zuten kilo kopuru nahikoa Turismo bulegoan saltzeko. Ez dela kopuru handia izango, baina, interesgarria litzatekeela. Poltsak izango direla kilo erdikokoak, saku itxura dutela, eta etiketan Debako babarrunak jarriko duela, eta horiek prestatzeko errezeta daramatela, lau hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Gilen Garciak, azaldu zuen Geoparkeko ekoizleek akordio antzeko bat dutela bere produktuak saltzeko, eta galdetu zuen ea kasu honetan ba ote dagoen horrelakorik. Alkateak erantzun zion froga bat dela, bertako babarrunak direlako eta ez dagoela ez hitzarmenik eta ezer ez, gainera, ez dutela oso ekoizpen handirik eta salmenta ere ez dela espero sekulakoa izango denik.

Gilen Garciak galdetu zuen ea salmentaren %100a baserritarri emango ote zaion, eta alkateak

erantzun zion, kilo erdiko zorrotxoak 9 euroko prezioa izango duela, eta baserritarrak jasoko duela berak merkatuan jarritako prezioa (14 euro kiloko) eta zorrotxo bakoitzeko beste 2 euroak izango direla, zorroa bera, ixteko zintatxoa eta etiketa ordaintzeko, Udalak ez duela inolako irabazirik aterako.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez ziren egon ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, etxebizitza alokatzeko laguntzak emateko oinarriak.

Gaia Gizarte Politikako batzordetik datorrenez, alkateak Isidro Aristiri eman zion hitza, eta honek azaldu zuen, 2022an argitaratu zirela etxebizitza alokatzeko laguntzen oinarriak, eta 2023an laguntza horiek lau pertsoneri baino ez zitzaizkien esleitu, eta horietatik bik itzuli behar izan zituzten jasotako laguntza ez zituztelako baldintzak betetzen, eta xede horretarako bideratutako 8.000 euro gauzatu gabe geratu zirela- Aurten partida 30.000 euro igo da, erabili ahal izateko asmoz. Horregatik, oinarriak aldatzea proposatzen dela.

Dirulaguntzak 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako direla, mugikortasuna murriztuta dutenentzat, 70 urtetik gorakoentzat, alarguntzat, banandu eta dibortziatuentzat, tutelatutako etxebizitza eskubidea dutenentzat, baldin eta Gizarte Zerbitzuek ezin badute kudeatu.

Para las personas del estrato social más bajo, que son las que más dificultades tienen para acceder a la vivienda por su bajo nivel de ingresos, hay otro tipo de ayudas como las de emergencia social, por las que se trata que la brecha social con estos colectivos sea menor, y desde el Ayuntamiento trabajamos para que así sea. no tenemos más referente que la experiencia del año 2023, no muy satisfactoria, por lo que proponemos modificar las bases de acceso a subvenciones al alquiler de la vivienda y aumentamos la partida destinada al mismo hasta los 23.000 euros, siendo conscientes de que el mayor desafío es conseguir la movilización de la vivienda vacía y cambiar el destino de ésta del alquiler de temporada de verano a todo el año en precios razonables.

Gilen Garciak adierazi zuen, lehenik eta behin bai euskaraz bai gazteleraz aipatu zuela diru partida 23.000 eurora igoko dela aurten, eta eskatu zuen ea zehaztuko zuen zenbateko horretatik zenbat den etxebizitzaren alokairurako eta zenbat azterketarako. Isidro Aristik erantzun zion 23.000 euroak alokairuen dirulaguntzetarako direla, eta aparte daudela beste 15.000 euro azterketarako. Gilen Garciak erantzun zion aurrekontuak landu zirenean gelditu zela 23.000 euroko partida horretan azterketa barruan zihoala, eta Isidro Aristik erantzun zion azterketarako beste partida bat dagoela 15.000 eurokoa. Gilen Garciak galdetu zuen ea noiz erabaki den aldaketa hori, eta Isidro Aristik erantzun zuen hasieratik izan dela horrela, eta Gilen Garciak erantzun zion ez zuela hori eztabaidatuko, baina Isidro berak, behin baino gehiagotan, bileratan eta batzordetan, adierazi zuela azterketa barruan zegoela .

Horrez gain, Gilen Garciak adierazi zuen, martxoko batzordean aztertu zela gai hori, eta esan zitzaizkion proposamenen bat izanez gero helarazteko. Euren eskatu zutela bileran bitartez lantzea, eta Isidro erantzuna izan zela akordiotara helduko ez zirenez ez zuela merezi. Horrela, berresten zuela bere proposamena dela lan bilerak egitea eta, ahal dela, euren ekarpenak txertatu. Isidro Aristik erantzun zion hori beste gai baten harira izan zela, alokairuaren gaian bilerarik ez zirela egingo ez zela inoiz esan, eta Gilen Garciak adierazi zuen, kontua dela ez direla bilerarik egin eta ezin izan dutela euren ekarpenak egin.



2024SPLE0005

5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

Gilen Garciak jarraitu zuen esanez Isidro Aristik eginiko irakurketan adierazi zuela behar gehien dituztenentzako badaudela beste prestazio batzuk, baina arau honek, gizarte larrialdi laguntza, RGI, edo beste prestazio batzuk jasotzen dituztenekiko arrakala handitzen duela. Berez, asmoa izan beharko litzatekeela gutxitzea, baina, ez du gutxitzen, maila berean jartzen dituelako, oinarri bakarra diru sarrerak direlako, eta hainbat adibide azaldu zuen. Horrez gain, 16 artikuluan jasotzen denez dirulaguntza hauek prestazio horien osagarriak izango direla. Horrela, gizarte larrialditarako laguntza jasotzen duen pertsona, bati prestaziotik jasotzen duena osatuko zaio eta, gehienez, 300 euro jasoko ditu, hilean 1.800 euroko soldata duenak, berriz, alokairurako 300 euroko dirulaguntza jasoko luke, hortaz, biek, guztira, zenbateko berdina jasoko luketela, horrela, egoera larrien dutenei ez zaiela laguntzen, egiten dena dela berdintasuna bai baina ekitaterik ez. Isidro Aristik azaldu zuen, bigarren kasu horretan dirulaguntza %25koa litzatekeela, eta ez zela 300 eurotara helduko, eta laguntzak arautzeko soldaten zenbatekoa gorakoa edo beherakoa izan daitekeela, eta eurek jarri zutela egokiena iruditu zitzaiena.

Gilen Garciak erantzun zuen zenbatekoan ez zela sartu, baizik eta arauaren zentzuan; eta azaldu zuen arau honek ekar lezakeen beste gabezia bat dela alokairuen igoera, batez ere ez bada muga bat zehazten. Ados daudela aurretik ezarritako mugak eguneratu beharko liratekeenarekin, baina mugarik ez jartzeak berarekin dakarrela, adibidez, 1.500 euroko alokairuak ere dirulaguntza jasotzeko aukera izatea, eta euren ustez, muga bat jarri beharko litzateke. Bileran aurkeztu zen dokumentuan jasotzen zela Gipuzkoako alokairuen batez bestekoa 800 euro inguruan dagoela, baina kontuan hartu behar dela Gipuzkoan daudela Donostia, Zarautz, Zumaia, Errenteria, edo Deba, alokairu prezio zoroekin, horregatik, ulertzen dutela muga eguneratzea, baina ez dutela ulertzen mugarik ez jartzea.

Isidor Aristik erantzun zuen Deban ez daudela alokatzeko etxebizitzarik, horregatik bateren batek 900 edo 1.000 euroko alokairu bat aurkitzen badu, aukera eman behar zaiola, eta Gilen Garciak galdetu zuen alokairua 2.000 eurokoa izanda ere aukera izango ote zuen. Alkateak erantzun zuen kontua dela ezarritako diru sarreren mugekin inor ez lukeela izango gaitasun ekonomikorik 2.000 euroko alokairua ordaintzeko, eta dirulaguntza, gehienez, 300 eurokoa izango dela, ez Udalak alokairu osoa ordaintzea, horregatik ez zuela uste prezioen igoera ekarriko duenik, eta bere taldea ez dagoela mugak jartzekoaren alde.

Gilen Garciak erantzun zuen euren irakurketa bi zentzuan zihoala, alde batetik behar gehien duten pertsonen eman behar zaien laguntza, arau honek berdindu egiten duela eta arrakala handitu egiten duela, eta, bestetik, muga bat ezarri beharko litzatekeela, ikusita Gipuzkoan batez bestekoa 800 eurotan dagoela, zentzuzkoa iruditzen zaiela 900 euro inguruan muga ezartzea, eta uste zuela ekarpen hori kontuan hartu beharko zela.

Alkateak adierazi zuen argitu nahi zuela onartutako aurrekontuetan bi partida desberdin daudela, batetik, alokairuentzako dirulaguntzarena, 23.000 eurokoa, 1.0500.480.150.00.01.2024 partida; eta bestetik, etxebizitzaren azterketa egiteko partida, 15.000 eurokoa, 1.0500.227.152.10.01.2024 partida, eta Gilen Garciak erantzun zuen berak esan duena izan dela euren esandakoa ez zela hori izan; eta bai alkateak, bai Isidro Aristik erantzun zioten horiek direla onartu ziren aurrekontuak, eta

gai horri buruz behin baino gehiagotan hitz egin dela, baita osoko bilkuran ere.

Isidro Aristik adierazi zuen nahiko zukeela mugen justifikazio bat egitea, muga horiekin diskriminazioa sortzen da alokairua eskuratu ezin duten diru sarrerak txikiagoak dituzten beste kolektibo batzuekiko. Lerro horiek 18 eta 35 urte arteko gazte dagoela zuzenduta, batez ere, baina beste kolektibo batzuk ere badutela eskubidea. Beste kolektibo batzuk beste dirulaguntza lerro batzuek dituztela, Eusko Jaurlaritzatik datozenak. Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programaren arabera oso zaila da Deban erroldatutako herritarrek laguntza horiek jaso ahal izatea ezarritako alokairuen prezioak eta ezarritako diru sarreren mugak direla, eta horren erakusgarri direla 2023an eman ziren bi laguntzak. Muga ezartzeko kuotak diru sarreren %30a ez gaintzeko irizpidea erabili dela, Debako udalerrian alokairuen prezioa hilean 600-800 eurokoa dela kontuan hartuta. Horrek adierazten duela gehieneko diru sarrerak 30.000 euro ingurukoak izan behar direla. Gainera alokairuen prezioen muga kendu dela kontuan hartuta diru sarrerek laguntza beharrak modu eraginkorrean zehazten dituztela. 2022ko oinarrietan muga 22.000 eurokoa izan zen, beraz, %36 igo dituztela. Era berean Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programaren bidez, 24.500 euroko muga ezarri du, lehen 18.000 euroko bazen ere, horiek ere %36 igo direla. Familientzako mugak, %19a handitu dutela, 32.000 eurotik 38.000 eurora, eta Eusko Jaurlaritzak %25 igo duela, 24.000 eurotik 30.000 eurora.

Gilen Garciak datuak eskertu zituen, eta adierazi zuen moldaketak eta eguneraketak ulergarriak izan daitezkeela, eta bere ustez, araudiaren xedea zehaztu egin behar dela, agian gehiago dela emantzipaziorako edo diru sarreren aldetik egoera hain larrian ez dauden gazteentzako, eta horiek ulergarria litzatekeela, eta zentzu horretan, iruditzen zaiela jarri beharko liratekeela oinarriak erabaki estrukturalagoak hartu ahal izateko, etxebizitza plana. HAPOaren idazketa, Madrilen onartu zen etxebizitza legea, identifikatzen dituztela hainbat neurri beste modu batean bideratu beharko liratekeenak, besteak beste, gune tentsionatuena, eta abar. Aipatuko kopuru horiekin ez daudela gatazkan, eduki izan litzatekeela beste irakurketa batzuk, baina, muga bat jartzeko beharra ezinbestekoa dela uste dutela.

Isidro Aristik erantzun zion bi horiek direla proposatutakoak, alde batetik gutxien irabazten duenari laguntzea, eta, bestetik, prezioari muga bat jartzea, baina arazo bat dagoela, gutxi irabazten dutenek ez dutela kapazidaderik pisu bat alokatzeko, kontuan hartuta soldataren %30a izaten dela alokairura bideratu behar dena. Jarri daitekeela %50eko laguntza, baina, horrela ere ez dela helduko. Gilen Garciak erantzun zion gaua bat dela zenbat bideratu behako lukeen alokairura edo etxebizitzarako, eta benetan zenbat bideratzen den, eta pasa den hauteskunde kanpainen azaldutako datuak oso kezagarriak izan zirela, jendeak bere soldataren zer portzentaia bideratzen duen horretarako, eta ez da %30a, oso urruti dagoela, hortaz, noski alokatzen dutela eta egiten dutela ahal dutena, birgeriak eta nahi bezala deitu, edo etxebizitza batean 10 lagun bizitzea, denetarako errealitateak daudela.

Isidro Aristik erantzun zion 2022ko oinarriekin bi bakarrik izan zutela dirulaguntza lortzeko aukera, eta bere ustez, aukera eman behar zaiola plan berri bati ea nola irteten den. Gilen Garciak erantzun zion, eurek ez dutela aurkako botorik emango, proposatzen duten bakarra dela alokairuen prezioei muga bat jarri behar zaiela dirulaguntza jaso ahal izateko, eta bilerarik egon ez denez hori lantzeko, bertan azaldu behar zuela euren proposamena.

Alkateak erantzun zion gobernutik ez dutela ikusten mugari jartzeko beharrik.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko zazpi (7) botoekin eta sei (6) abstentziorekin, onartu zituen, etxebizitza alokatzeko laguntzak emateko oinarriak.

Oinarrien testua akta honen eranskinean jasotzen dira.



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

5- Gai zerrendatik kanpoko gaia: onartzea hala badagokio LGTBIQ Fobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala.

Alkateak adierazpena irakurri zuen:

«LGTBIQ Fobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala.

Maiatzaren 17an, ahotsa goratzen dugu LGTBI pertsonen aurkako erasoak eta jasaten duten diskriminazioa salatzen.

24 urte igaro dira OMEk homosexualitatea gaixotasuntzat hartzeari utzi zionetik, eta bost urte DSM-5ek (Ameriketako Estatu Batuetako Psikiatria Elkartearen Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburua) transexualitatea buruko nahasmendu gisa ezabatu zuenetik. Jendarteak aurrera egin duen arren egun LGTBI pertsonen diskriminazio egoerak bizi dituzte euren eguneroko bizitzan. Horregatik, ezinbestekoa da gure jendarteak genero-identitate, orientazio eta adierazpen guztiak errespetatzea eta horien kontra ematen diren indarkeriei aurre egitea.

Ez dugu inolako bazterkeriarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik nahi. Aske bizi diren herritarrak nahi ditugu eta horretarako norberak bere sexualitatea, orientazioa, generoa eta adierazteko modua askatasun osoz bizitzeko aukera izatea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Hau honela, maiatzaren 17 honetan eta urteko gainontzeko egunetan egin behar den bezala sexu- eta genero-aniztasunarekiko gorrotoak eragindako erasoak salatzen konpromisoa berresten du Deba Udalak gizarte justu, parekide eta eraikitzaileago bat bultzatzen jarraitzeko.»

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen LGTBIQ fobiaren aurkako nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

Alkateak proposatu zuen egun horretan udaletxeko balkoian koloretako bandera jartzea. Adierazi zitzaion LGTBI eguna ekainaren 28an dela, eta maiatzaren 17a LGTBIQ fobiaren aurkako eguna, hortaz, hobe zela bandera ekainaren 28an jartzea.

6.- Eskari eta galderak.

Ez ziren egon ez eskaririk ezta galderarik ere.

Besterik ez zegoenez, 19:30tan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea

Jose Luis Salaberri Inarra
Idazkaria



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA ERANSKINA

BILERA ZK.: 2024/05

EGUNA: 2024/04/25

Debako herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarriak.

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauen xedea, oinarri hauen 4. artikuluan aipatzen diren biztanleriaren kolektibo desberdinen ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahalko dira onuradun, baldin eta familia-unitate beraren kideak ez badira eta errentamendu kontratua guztiek sinatzen badute.

Oinarri hauen ondorioetarako, familia-unitatetzat hartuko da ahaidetasun-loturak dituzten pertsonen taldea, odol-loturak, adopzioak, ezkontzak edo izatezko bikoteak izan. Bestalde, bizikidetzta-unitatetzat hartuko dira etxebizitza bat partekatzen duten eta espazio fisiko berean bizi diren pertsonak, baina familia-unitatea osatzen ez dutenak.

Diru-laguntza oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gehienez 12 hilabetetan izandako alokairu gastua kontuan hartuta, eta betiere, baldintza horiek denbora-tarte horretan mantentzen badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairu edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garajeari dagozkionak bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagozkion kontratuan berariaz jasota egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo kontribuzio edo zerga kontzeptuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten ez bada.

2. artikulua. Beste erakunde batzuen programak.

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza alokatzeko GAZTELAGUN programaren diru-laguntzak udal laguntza hauek baino lehentasun handiagoa izango dute. Eskatzaileak derrigorrez eta lehentasun izaerarekin (udal laguntzaren ebazpena aurretik) tramitatu izan beharko du Eusko Jaurlaritzaren laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horretatik salbuetsita egongo da, hain zuzen ere udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Irizpide berari eutsiko zaio Gizarte-Larrialdietarako Laguntzaren kasuan, etxebizitzarako laguntza

osagarrien kasuan (Lanbide), eta etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboko etxebizitzako prestazio ekonomikoaren kasuan.

3. artikulua. Aurrekontua.

Oinarri hauen arabera deituko diren diru-laguntzak Debako Udalaren aurrekontuaren kontura finantzatzeko dira. Deialdi bakoitzean zehaztuko da deialdiaren xede diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa, baita diru-laguntza horiek ordaintzeko erabiliko diren aurrekontu-partida edo -partida zehatzak.

4. artikulua. Onuradunak.

Oinarri hauei jarraituz emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion deialdia argitaratzen den egunean, eta diruz lagungarri den epealdian, jarraian aipatzen diren baldintza zehatzaren bat betetzen dituzten pertsona edo familia-unitateak:

A) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, familia-unitatearekin bizi diren menpeko adin txikikoak salbuetsita.

Diru-laguntza 36 urte betetzen diren hilaren aurreko hilabetera arte onartuko da.

Hala ere, familia-unitateko kideren batek 36 urte baino gehiago izatea onartuko da, baldin eta adin-eskakizuna betetzen duen pertsona errentamendu-kontratuaren titularra edo titularkidea bada, eta adin-muga gainditzen dutenek pertsona horrekin ezkontza-harremana edo antzekoa badute, edo 1. edo 2. mailako odol-ahaidetasuna edo 1. mailako ezkontza-ahaidetasuna badute. Kasu horietan, adinaren baldintza betetzen duen pertsonak aurkeztuko du eskabidea.

B) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 10 bitarteko puntuak), bai eta ezgaitasun absolutua duten pertsonak ere. Mugikortasun urria edo ezgaitasun absolutua egiaztatzeko beharrezkoa den txosten teknikoa kudeatze prozesuan duten eskatzaileen eskaera onartua izango da, betiere diru-laguntza eman aurretik aipatu dokumentazioa aurkezten badute.

C) Bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak (sententzia judizial irmoa izan behar dute).

D) 70 urtetik gorako pertsonak.

E) Alargunak.

Halaber, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko eskubidea duten pertsonak, beti ere, Debako Udalak egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian.

5. artikulua. Eskatzaileen betekizunak:

a) Eskatzaile edo bizikidetzak- edo familia- unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza bat edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentaiak % 50 ez badu gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioak 75.000,00 euro ez baditu gainditzen.

Aurretik aipatu diren B) C) eta D) kasuetan, salbuetsita egongo dira etxebizitza izatearen baldintza betetzeaz honako kasuetan:

1. Bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak.

2. Banantze, dibortziate edota izatezko bikote lotura amaitzeko prozesu baten ostean, etxebizitza judizialki beste ezkontide edo bikotekidearen familia-helbide gisa esleitzen bada.



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

3. Etxebizitzak indarreko araudian xedatutako irisgarritasun baldintzak ez betetzea, titularrak 70 urte edo gehiagokoak diren kasuetan.

4. Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzerakoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin baten parte izatea, betiere familia-unitateko kideetako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua bada.

Udalaren txosten tekniko beharrezkoa izango da, aipatu etxebizitzak bizigarritasun nahiz irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzeko.

5. Jabetzan duten etxebizitza hori Bizigune programaren esku uztea.

b) Eskatzailearen bizikidetzatza- edo familia- unitatea osatzen duten pertsona guztiak, diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira alokairu kontratua sinatu ostean (organo kudeatzailea arduratuko da baldintza hori instrukzio fasean egiaztatzeaz).

Bizikidetzatza-unitateen kasuan, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxe bizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek pertsona horien erroldako baja-eskaera egin beharko dute, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

c) Gutxienez bizikidetzatza-edo familia-unitateko pertsona bat Debako udalerrian erroldatua egotea, gutxienez, aurreko bi (2) urtetan eskaera aurkezteko unean.

d) Bizikidetzatza- edo familia-unitateko diru-sarrerak honakoa baino txikiagoa izatea:

30.000,00 euro urtean, bizikidetzatza- edo familia-unitate batean sartuta ez dauden pertsonen kasuan.

38.000,00 euro urtean, bizikidetzatza- edo familia-unitateen kasuan.

Diru-laguntza kalkulatzeko, bizikidetzatza-edo familia-unitatearen diru-sarrera haztatuak hartuko dira kontuan, hau da, bizikidetzatza-edo familia unitateko pertsona guztien diru-sarrerak, bizikidetzatza-edo familia-unitate osatzen duten pertsonen kopurua eta diru-sarrerak dituzten bizikidetzatza- edo familia-unitateko pertsonen kopurua. [Diru-sarren simulazioa](#).

Banandu edo dibortziatuen kasuan, diru-sarren zenbatekoa kalkulatzekoan seme-alabengatik mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagozkien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie, beti ere pentsio edota kuota horiek dagokion epaian jasota badaude.

Diru-sarrera konputagarriak izango dira honako hauen batuta: zerga oinarri orokorrak, aurrezkien zerga oinarriak lan etekin hobariak eta salbuetsitako errentak.

Kontuan hartuko diren diru sarrerak izango dira aitortpena aurkezteko epea amaitu den eskaeraren aurreko azken ekitaldiko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpenaren diru-sarrerak.

e) Diru-sarren osaketari dagokionez, ezin izango da zerga-ekitaldiko kapitalaren errentak ezin

izango dira Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) tauletakoa baino handiagoak izan.

f) Bizikidetzak- edo familia-unitateko kide guztiek Debako Udaleko zerga, tasa eta zehapenen ordainketak egunean izan behar dituzte.

g) Onuradunen eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

h) Eskatzaileek Etxebiden izena emanda edo inskripzio-eskaera aurkeztu dutela egiaztatu beharko dute. Obligazio hau ez dute bete beharko Etxebiden inskribatzeko baldintzak betetzen ez dituztenek, aldez aurretik justifikatuta.

i) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako ezein eragozpen-egoeratan ez egotea, eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29. artikulura bitartean ezarritako baldintzak betetzea.

j) Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga obligazioak egunean izatea.

k) Eskatzaileari, edo bere bizikidetzak unitateko edozein kideri, legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, eskaera egin aurretik (ikus beste erakunde batzuen diru-laguntzei buruzko atala 2. artikuluan).

l) Bizikidetzak- edo familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeak izan ezik, atal honetan zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

6. artikulua. Etxebizitzak bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Debako udalerrian kokatuta egon beharko da eta dagokion bizigarritasun-zedula izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak, gutxienez, ondorengo bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu:

a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.

d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 voltetako instalazio elektrikoak, dagokion buletinarekin.

e) Iturriko ura izatea.

f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.

g) Kalerako aireztatzea.

h) Bizikidetzak- edo familia-unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat.

7. artikulua. Baztertzeak.

1. Ezin izango dira diru-laguntzaren onuradun izan honako kasu hauetakoren batean dauden eskaera, etxebizitza edo alokairu kontratuak:

a) Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

b) Berrakurak.

c) Logelen alokairuak (logela eskubidea).

d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

- e) Bizigune programaren barruan dauden alokairuko etxebizitzak.
- f) Gaztelagun programako laguntza ekonomikoa, etxebizitzarako laguntza osagarria (Lanbide), alokairu ordaintzeko Gizarteratzeko Larrietarako laguntza (GLL), edo etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboko etxebizitzako prestazio ekonomikoa jasotzen duten etxebizitzak.
- g) Euren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamendu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak.

Kasu horietan, dagokion departamendu edo erakunderi helaraziko zaizkio eskaera hauek, interesatuari egoera horren berri emanaz.

2. Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik

8. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotzen direnez gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- a) Diru-laguntza eman den helbururako erabiltzea.
- b) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztea Debako Udalari.
- c) Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri ematea.

9. artikulua. Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak horretarako onartutako eredia erabilia aurkeztuko dira, Udalaren HAZ gunean edo udal web orrian.

Eskaerarekin batera, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira (orohar, eskaera guztientzat):

- a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza-txartelaren fotokopia.
- c) Adin txikikorik balego, familia liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hau kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengo ahaidetasuna alegatu bada. Familia libururik ez balego, adin txikikoen jaiotza ziurtagiri literala (Erregistro Zibila) aurkeztu beharko da.
- d) Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagungarri den epealdiari dagokiona.
- e) Banku kontu baten zenbakia, eta kontu horren titularitatea egiaztatzen duen banku agiria.
- f) Estatu mailan etxebizitza jabe ez izatearen ziurtagiria, bizikidetzak- edo familia- unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, Jabetza Erregistroak, Foru Ogasunak edota Estatuko

Ogasunak igorria eta, gehienez, laguntza eskaera aurkeztu baino 15 egun lehenagokoa.

g) Etxebide izena eman izanaren egiaztatzea, edo izena emateko eskabidea aurkeztu izanarena, edo laguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

h) Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, honako agiriak ere aurkeztu beharko dira:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta partizioaren eskritura.
- Dohaintza-kasuan, dohaintza eskritura.
- Bi kasuetan, partaidetza saldu izanaren kasuan: eskualdatze eskritura.

i) Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

- Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatik mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

j) Dagokion kasuan:

- Lanbidek igorritako ebazpena, EPO kobratzea dagokion edo ez adierazten duena.
- Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena, Gaztelagun alokairu laguntza kobratzea dagokion edo ez adierazten duena.
- Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena, Eskubide Subjektiboaren Prestazioa kobratzea dagokion edo ez adierazten duena.
- Udalak igorritako ebazpena, GLL kobratzea dagokion edo ez adierazten duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko.

Debako Udalari dagokio oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, administrazio publiko ugarietatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta.

Interesdunak beste administrazio batzuei bere datuak kontsultatzearen aurka egiteko aukera izanez gero, aurkakotasun horrek arrazoituta egon beharko du. Aurka egiteko eskubidea baliatuz gero, dokumentazioa interesdunak aurkeztu beharko du.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskariak aurkezteko epea deialdi bakoitzean adieraziko da eta epea hasiko da kontatzen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako nahitaezko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, atzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, 39/2015 Legeak xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta ondoren.



12. artikulua. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.

Udal Idazkaritza.

13. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat esleituz.

Atal sistema:

a) Bizikidetzatza- edo familia-unitate batean sartuta ez dauden pertsonak:

Diru-sarrerak	Laguntza (alokairuaren %)
< 24.000,00 €	35
24.000,01 € - 30.000,00 €	25

b) Bizikidetzatza- edo familia-unitateak:

Diru-sarrerak	Laguntza (alokairuaren %)
< 38.000,00 €	25

Diru laguntza, gehienez, hilean 300,00 euro izango da eskaera bakoitzeko.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontutan hartuko da oinarri hauetako 1. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa.

Dagokien aurrekontu-partidatan jasotako zenbatekoa nahikoa izango ez balitz, Udalak zenbateko hori onartuak izan diren eskaera guztien artean hainbanatu ahal izango du.

14. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa eta egiaztatagiriak aurkezteko epea.

Diru-laguntza bizikidetzatza- edo familia-unitate bakoitzeko ematen da, berau pertsona bakarrak edo gehiagok osatua egon daiteke.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da:

- Lehen ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da. Ebazpen hori eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru (3) hilabete baino lehen egingo da.

Lehen ordainketaren zenbatekoa, data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen araberako proportzioan egingo da.

- Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerako zatiari dagokiona, egiaztatagiri guztiak aurkeztu ostean egingo da.

Dagokion kasuan, gainerako egiaztatagiri guztiak lagungarri den hamabi hilabeteko epealdia amaitu ondoren aurkeztu beharko dira, eta nolana ere, diru-laguntza onartzen duen ebazpenean adierazitako eguna baino lehen.

Alokairu partekatua den kasuan, bizikidetzatza-unitate bakoitzari dagokion laguntza kalkulatzeko,

etxebizitzaren hileko errenta osoa kontratuko titular kopuruaren artean zatituko da, eta ordainketa eskatzaile bakoitzaren bankuko kontuan egingo da.

15. artikulua. Agiri justifikagarriak.

Behin diru-laguntza onartuta, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko eta egindako ordainketak justifikatu ahal izateko, ondorengo agiri justifikagarriak aurkeztu beharko dira:

Alokairu-kontratuaren baitan egindako hileko ordainketen egiaztagiria. Ordainketak banketxe bidez egin beharko dira, eta honako kontzeptu hauek jaso beharko dira: gastua eta dagokion epealdia zenbatekoa zehaztuz, eta pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioari eta kokapenari buruzko oinarritzko datuak, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionalaren zenbakia (NAN).

Deialdian diru-laguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Debako Udalak diru laguntza bertan behera utzi eta jasotako diru laguntzaren itzulera eskatuko ditu.

16. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Laguntza horien eskatzaile gisa berariaz baztertuak izango dira, Bizigune programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten eskatzaileak.

Aurreko ataletan jasotakoaren kalterik gabe, laguntza hauen onuradun izan ahalko dira gizarte bazterketa eta muturreko beharrak leuntzeko Debako Udalak emandako bakarkako diru-laguntzen onuradun izan daitezkeen eskatzaileak, Etxebizitzako Prestazio Osagarria, eta GLL alokairurako jasotzen dutenak, Gaztelagun, etxebizitzako laguntza osagarria (Lanbide) eta eskubide subjektiboko prestazioak jasotzen dituztenak, diru-laguntza oinarri hauen bidez eman daitekeen gehieneko diru laguntzara iristen ez direnean. Kasu horietan, alokairurako diru-laguntza hauek 13. artikuluan arabera lagun daitezkeen gehieneko zenbatekora iritsi arteko izaera osagarria izango dute.

Edonola ere, euren eskubideak baliarazi egin beharko dituzte, dagozkien laguntzak eskatuz. Bestela, ezingo dute oinarri hauetan jasotako alokairurako laguntza osagarria jaso.

17. artikulua. Balorazio irizpideak.

Diru-laguntzak emateko oinarritzko irizpideak, oinarri hauen 13. artikuluan zehaztuta daude.

Baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion diru-laguntzak oinarri hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

18. artikulua. Prozedura.

1. Instrukzioa eta ebazpen proposamena.

a) Udal Idazkaritzari dagokio, oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen instrukzio lanak egitea. Dagokion txosten teknikoa egin ostean, eskaerak dagokion batzorde informatiboak aztertu eta ebaluatuko ditu, eta organo eskudunari ebazpen proposamena egingo dio.

b) Ebazpen-proposamena interesatuei jakinaraziko zaie Debako Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

2. Ebazpena.



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

- a) Ebazpen proposamena onetsi ondoren, Alkatetzak prozedura ebatziko du ebazpen arrazoituaren bidez oinarrietan ezarritakoarekin bat.
 - b) Ebazpenean berariaz jasoko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.
 - c) Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da eskaerak aurkezteko azken egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela uler daiteke. Hala ere, Udalak egokitzat jotzen duena ebatzi ahal izango du, ustezko ezespren horrekin inolako loturarik izan gabe.
- Argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko, eta argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die, posta elektronikoz, eskatzaileei.
- d) Prozeduraren ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio.
 - e) Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitakoari jarraituz.
 - f) Ebazpenean diru-laguntzaren zenbateko osoa adieraziko da, baita ordainketa bakoitzari dagozkion zenbatekoak ere.

19. artikulua. Diru-laguntzaren kontrola.

Debako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu eta ikuskatu ahal izango dute, bai eta udal datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte, diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Laguntzen onuradunek, Debako Udalak bere fiskalizazio eginkizunak betetzeko eskatzen dien informazio guztia emango dute.

20. artikulua. Betebeharrak ez betetzea. Itzulketa kasuak.

1. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 36. artikuluan diru-laguntza emateko erabakiaren deuseztasun- edo deuseztagarritasun-kasuetarako xedatutakoa alde batera utzi gabe, jasotako dirua itzultzeko eskatuko da, baita ordaindu den unetik aurrera dagokion berandutze-interesa ere, ondorengo egoeraren bat gertatuko balitz:

- a) Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako moduan eta epeetan.
- b) Diru-laguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo diru-laguntza jasotzea galaraziko zuketena baldintzak ezkutatuz.
- c) Diru-laguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d) Diru-laguntza ematearen xedea ez betetzea.
- e) Organo eskudunen kontrol-jarduerak ukatzea edo oztopatzea.

2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

21. artikulua. Diru-laguntza itzuli arazteko prozedura.

1. Diru-laguntza eman zuen organoak berak izango du laguntzaren zenbatekoa –osoa edo partziala– itzultzeko akordioa hartzeko eskumena.

2. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru-laguntza ematen duen organoak hala erabakita, edo bestela partikular batek salatuta.

3. Prozedura izapidetzerakoan, beti ere interesdunari entzuteko eskubidea bermatu egin beharko da.

4. Emandako diru-laguntza osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko itzuli behar den, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.

5. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, hala badagokio, zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

6. Itzultzeko prozedura, diru-laguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisikoen aurka zuzenduko da.

7. Diru-laguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

22. artikulua. Argitara ematea.

Debako Udalaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko dira, emandako diru-laguntzen zerrenda, horiek jasoko dituzten onuradunak eta jasotako diru-kopuruak.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta argitaratze hori pertsona fisikoen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean.

23. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantza guztiak Alkatetzak ebatziko ditu, deialdiak onartzeko organo eskuduna izanik, dagokio informazio batzordeak txostena egin ondoren, hala badagokio.

24. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileek emandako datu pertsonalak Debako Udalaren ardurapeko datu tratamendu batean sartuko dira.

Jasotako izaera pertsonaleko datuak tratatzeko helburua izango da diru-laguntzen deialdia kudeatzea eta ebaztea, deialdiak duen interes publikoan eta parte hartzeko egin den eskaeran oinarrituta.

Izaera pertsonaleko datuen trataera legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Debako Udalari berari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.



2024SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2024/04/25

Datuak jakinarazi ahal izango zaizkie zerga administrazioari eta fiskalizazio organoari kontabilitate kontrola egiteko, eta banketxei, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege mailako araudian jasotzen diren kasuetan.

Datuak diru-laguntza emateko prozeduraren tramitazioak eta sor daitezkeen erreklamazioen tramitazioak irauten duen bitartean gordeko dira.

Datu pertsonalen tratamenduari eta horiek eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, mugatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal izango dira dbo-dpd@deba.eus helbide elektronikoa idatzi bat bidalita.

25. artikulua. Errekurtsoak.

Oinarri hauen aurka zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarriak onartu dituen organoaren aurrean, horiek argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertzea berariaz ebatzi edo ustezko ezespina gertatzen den arte.

Hori guztia bidezkoztat jotzen den beste edozein errekurtso jartzearen kalterik gabe.